

BILBO. Alkateak argi itxi dau prest dagoela aurreko aurrekontuak luzatuz aurrera egiteko

Kontuen proposamena bertan behera izteko eskatu dabe oposizinoek

Talde guztiek osoko zuzenketak aurkeztu deusieez Azkunak egindako aurrekontuei

Kontuen ganeke proposamena aurkeztu ebanean, Azkuna alkateak argi eukan oso gatxa izango zala Udalbatzarraren babesa lortzea.

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



ESANAK

ANTONIO BASAGOITI
(Alderdi Popularreko bozeroalea)

«Euro bat bera be ez dabe gorde uriburuak dituan arazorik larrienei aurre egiteko»

DIMAS SAÑUDO
(Alderdi Sozialistako bozeroalea)

«Alferrik egindako ahalegina izan da, inongo sinesgarritasun politikorik bakoa»

LANDER ETXEBARRIA
(Sozialista Abertzaleen bozeroalea)

«Aurrekontuok ez ditue bultzatzen euskerearen erabilera edo eraikuntza nazionala»

JULIA MADRAZO
(Ezker Batuko zinegotzia)

«Azkunak ausardia barik jardun dau; proposatzen diranak orain artekoaren jarraipen hutsa dira»

Iñigo Bilbao

Oposizinoen talde politiko guztiek osoko zuzenketak egin deusieez Iñaki Azkuna alkate jeltzaleak aurkeztu deusiezan aurrekontuen ganeke proposamenari. PPK, PSE-EEK, Sozialista Abertzaleek eta EBk argi itxiko deusie Udal Gobernuari ez dituela euren kontuak onartuko garagarriaren 3an egingo daben udalbatzarrean.

EAJ-EA taldeko zinegotziek ICVGaz osatzen daben gobernuak osoko zuzenketak atzera botateaz ganera, beste talde baten babesa lortu beharko dau aurrekontuen proposamenak aurrera egitea gura badau. Azkunak berak argi itxi dau Udalbatzarrak proposamena onartzen ez badau be, euren aurrera egingo dabela, azkenengo urte bietan egin daben

lez, aurreko urteko aurrekontuak luzatuz.

Zenbait eragile, dana dala, hasi dira dagoeneko hipotesiak egiten, eta aurrekontuak onartu leitekezala aurreratzen dabe. Dinoenez, nahikoa litzateke gobernuak ezker abertzaleko taldeak aurkeztu dituan bederatzi zuzenketak onartzea, Sozialista Abertzaleek ordainean, egitasmoa babesteko.

Lander Etxebarriak ez dau berbarik egin gura izan horren ganean. Prentsaurrekoa deitu dau gaur goizerako, eta hor eza-gutu eragingo dau nondik nora doazen zuzenketak, eta bere taldeak zer egingo dauen udalbatzarreko botazinoan. Argi itxi dau, hori bai, jeltzaleak aurkeztu dituen kontuek ez dituela, euren ustez, «urriak dituan premi-na politikoa eta sozialei erantzuten ez eta euskerearen

erabilera bultzatzen, edo Euskal Herriaren eraikuntza nazionalan konpromisorik hartzen», esan dau Etxebarriak.

Eurorik ez arazoei erantzuteko

Popularrek, bestalde, proposamena txarretsi dabe, euren berbetan «euro bat bera bez ez dauelako gordetzen uriburuak dituan arazorik larrienei, etxebizitzeta eta enpleguari, aurre egiteko». PPKo zinegotziek gogoratzen dabe Bilbok Udalbiltza barruan jarraitzen dauela, eta, euren ustean, «ez dauela Estatutuaren edo Konstituzinoaren aldeko posturirik egiten».

Dimas Sañudo PSE-EEko bozeroaleak be argi itxi dau bere taldeak ez dituala kotuak babestuko. Proposamenaren edukian sartu aurretik, alkatea ez dala gai izan oposizinoagaz ezer berbatzeko nabarmendu

dau. Sañudoren ustez, jeltzaleek bere garaian Lizarraren alde hartutako jarriereak bertan behera itxi zituan sozialistekin urteetan altsautako zubiak.

Aurrekontuak inongo babes politikoa barik aurkezteak hauteskundeetarako urte bete falta danean, «alferrik egindako ahalegina» izan dala uste dau zinegotzi sozialistek, «ezelango sinesgarritasun politikorik bakoa» alkateak berak onartu dauelako horrek ez dauela aurrera egingo.

Julia Madrazo EBko zinegotzi bakarrak be berba gogorrak izan ditu kontu horreen kontra. Azkunak «ausardia barik» jardun dauela uste dau, eta egitasmoan proposatzen diranak orain arte egindakoaren jarraipena besterik ez dirala ganeratu dau, «arazoei benetako erantzuna emoten ez deusienak».

EZKERRALDEA

Portuko tren dala eta, Jaurilaritzak txarretsi egin dau alkateen jarreera

Erredakzioa

Jaurilaritzako Garraio eta eta Herri Lan Sailak agiri bat kaleratu dau Ezkerraldeko eta Meatzaldeko alkate sozialistek egunotan egindako adierazpenei erantzun, eta euren bai «Bilboko Portuko tren sarbidea egin beharra» ikusten dabela argitzeko.

Udalei proiekturaen alde egiteko eskatu deusie Jaurilaritzak, agirian nabarmentzen dauenez, ez dauelako ulertzen zergaitik agertu diran horren kontra: «Garatzen dagoen alternatibea, Bizkaiko erakundeek aukeratu dabe; zehatzago esanda, Ezkerraldea Bizibarritzeko Erakundearen arteko Batzordeak eta Ortuellako Udalak berak».

«Ezin dogu gure herriaren bizitza-kalitatea hobetuko dauen aukerea alferrik galdu», esan deusie Jaurilaritzak Ezkerraldeko alkate sozialistek.

BILBO

Olabeaga auzoa bizibarritzeko planak pauso bat emon dau aurrera egunotan

Erredakzioa

Udalak zabaldu ditu dagoeneko Olabeagako udal zentroko instalazio barriak, sasoi baten ikastetxea izandako eraikina barrizko egindako obren ostean. Danetara 900 metro koadro dituan etxea libre geratu zan 1998. urtean eskola hortik atara ebanean.

Orain, 1.213 bizilagun dituan auzoko kultura edo kirol taldeen eta auzotarren alkateen topagune eta ekintzak egiteko zentroa izango da etxea. Udalak eskola-altzariak atara eta zentroa atondu ostean, auzoko taldeen esku itxi eban eraikina. Auzotarrek euren beheko solairua konpontzeko eskatu eutsien Udalari, egoitzea euren preminei egotitzeko. Laster, bestalde, Bilbobusa be ailegatu-ko da Olabeagaraino.